



Mexikoko, Costa Ricako, Txileko, Uruguaiako eta Argentinako sei film aurkeztuko dira Zinema Eraikitzen atalean

Donostia Zinemaldiaren hurrengo edizioan Mexikoko, Costa Ricako, Txileko, Uruguaiako eta Argentinako sei film aurkeztuko dituzte, datorren irailaren 22 eta 23an izango den Zinema Eraikitzen jardunaldietan.

A tiro de piedra (Mexiko), Sebastián Hiriart zuzendariarena; *Agua fría de mar* (Costa Rica-Frantzia), Paz Fábregarena; *Lucía* (Txile) Niles Jamil Atallah zuzendari duena; *Norberto apenas tarte* (Uruguai), Daniel Helndler-ena; *Rompecabezas* (Argentina-Frantzia), Natalia Smirnoff-ena eta *La vida útil* (Uruguai), Federico Veiroj zuzendariarena. Horiek dira Zinema Eraikitzen ekimenaren 16. ediziorako hautatutako sei filmak. Ekimena Donostia Zinemaldiak eta Tolosako (Frantzia) Rencontres Cinémas d'Amérique Latine jaialdiak antolatzen dute bi urtean behin, Latinoamerikako zinemari laguntzeko.

Donostian iaz izandako partaidetza bikoiztu egin da aurten; 115 proiektu jaso dira 21 herrialdeetatik. 2008an, berriz, 64 jaso ziren 20 herrialdeetatik bidalita. Jasotako proiektuetatik sei film hautatu dira, eta horiek izango dira ekoizpenak burutzeko laguntzak eskuratzeko hautagai.

Zinema Eraikitzen 16 ekimenean ondorengo sariak emango dira:

- Industriaren Zinema Eraikitzen Saria: Kodak (división de cine profesional), Mediapro, Molinare Madrid, No Problem Sonido, Technicolor Entertainment Services Spain eta Titra Film enpresak elkarrekin arduratuko dira aukeratutako filmaren postprodukzioaz, 35 mm-ko kopia ingelesez azpitolatua burutu arte.
- TVE Saria, 60.000 euro gordinez hornitutakoa, hautaturiko filmetako baten emisio-eskubideen erosketan datzana.
- Zinema Latinoamerikarraren Postprodukzioarako Laguntzan datzan Casa de América Saria, 10.000 euro gordinez hornitutakoa.

Aurrekoaz gain:

- Zinema Eraikitzen ekimeneko filmak nazioartean zabaltzen dira Instituto Cervantesen mundu mailako sarearen bitartez.





A TIRO DE PIEDRA

Zuzendaria: Sebastián Hiriart • **Gidoia:** Gabino Rodríguez, Sebastián Hiriart
• **Argazkia:** Sebastián Hiriart • **Antzezleak:** Gabino Rodríguez
Iraupena: 118 m. • Mexiko

Jacinto Medina, 21 urteko gaztea, aspertuta dago Mexiko iparraldean daraman artzain bizitzaz. Giltzari bat topatuko du lurrian eta seinale bat delakoan, bere ametsi jarraituz, milaka kilometroko bidaiari ekingo dio. Sebastián Hiriart mexikarraren opera prima zuzendari lanetan.

AGUA FRÍA DE MAR

Zuzendaria: Paz Fábrega • **Gidoia:** Paz Fábrega • **Argazkia:** María Secco • **Antzezleak:** Montserrat Fernández, Lil Quesada Morúa, Luis Carlos Bogantes
Iraupena: 79 m. • Costa Rica-Frantzia

Urteberriko oporretan, Marianak (21 urte) eta Rodrigok (30) Hego Pazifikoko kostaldea bisitatuko dute. Gauean, ezerezaren erdian, etxetik ihes egin duen Karina (7) aurkituko dute. Bikoteak haurrarekin geratu eta goizean laguntza bilatzea erabakiko du. Baina iratzartzean, haurra jada ez da egongo.

LUCÍA

Zuzendaria: Niles Jamil Atallah • **Gidoia:** Niles Jamil Atallah • **Argazkia:** Niles Jamil Atallah • **Antzezleak:** Gabriela Aguilera, Gregory Cohen, Eduardo Barril, Esperanza Silva, Andrés Kalawski
Iraupena: 120 m. • Txile

Lucía gaztea, fabrika batean jostun lanetan aritzen da eta aitarekin bizi da, Santiagoko etxe zahar batean. Filma 2006ko abenduan dago kokatua, Pinochet diktadore ohiaren hiletatik Gabonak arteko garaian. Luciaren eguneroko bizitza ezagutzuz, diktadura militarren ondoren suspertzeko borrokan ari den ahaztutako txiletar belaunaldi baten unibertsoan sartuko da ikuslea. Opera prima.

NORBERTO APENAS TARDE

Zuzendaria: Daniel Hendler • **Gidoia:** Daniel Hendler • **Argazkia:** Arauco Hernández • **Antzezleak:** Fernando Amaral
Iraupena: 83 m. • Uruguai

Norberto lanetik bota dute eta higiezin agentzia batean saltzaile hasi da lanean. Emazteari kontaktzea gerorako utzi du. Nagusi berriak nortasuna indartzeko ikastaro bat egitea gomendatu dio, horrela, lotsa gaintzeko. Hortaz, aktore izateko hasiberrientzako ikastaro batean hasiko da. Hiruhileko amaierako emanaldirako prestaketak egiten dituen bitartean, ezin du sinesgarri izatea lortu, ez bezeroekin, ez emaztearekin, baina bere buruari gezurra esateko gaitasun handia duela ohartzen da. Daniel Burman zuzendariaren *El abrazo partido* (2004) filmeko aktorearen lehen film luzea zuzendari lanetan. Aktore onenaren saria jaso zuen Berlingo Zinema Jaialdian.



ROMPECABEZAS

Zuzendaria: Natalia Smirnoff · **Gidoia:** Natalia Smirnoff · **Argazkia:** Bárbara Álvarez · **Antzezleak:** Maria Onetto, Gabriel Goity, Arturo Goetz
Iraupena: 88 m. · Argentina-Frantzia

Auzo pobre batean bizi den 50 urteko etxeakoandrea da María del Carmen eta dohain bat duela konturatuko da: buru hausgarriak ebaztea. Bidean Roberto ezagutuko du, Alemanian munduko buru hausgarrien txapelketan parte hartu nahi duen 60 urteko gizon diruduna. Jokoa inork gainditu ezin duen bikotea osatuko dute bien artean. Horrek desio eta aurkikuntza ugari ekarriko dizkie. Nola jarraituko du bizitzak honekin guztiarekin? Berdin-berdin jarraitzea ezinezkoa da. Lucrecia Martel, Pablo Trapero, Jorge Gaggero eta Alejandro Agresti zuzendarien laguntzaile izandakoaren lehen film luzea da honakoa zuzendari gisa.

LA VIDA ÚTIL

Zuzendaria: Federico Veiroj · **Gidoia:** Inés Bortagaray, Gonzalo Delgado, Arauco Hernández, Federico Veiroj · **Argazkia:** Arauco Hernández Holz · **Antzezleak:** Jorge Jellinek, Manuel Martínez Carril, Paola Venditto
Iraupena: 67 m. · Uruguai

Jorge (45) gurasoekin bizi da eta 25 urte daramatza zinemateka batean lanean. Lan teknikoak eta programazio-lanak egiteaz gain, zinemari buruzko irratsaio bat zuzentzen du. Zinemateka gero eta egoera larriagoan dago eta Jorge, zinema mundutik kanpo lanean sekula ibili gabea izaki, lanik gabe geratuko da. *La vida útil* filmaren mamia hauxe da: Jorgek bere izateko modua aldatu beharra, mundu berrira egokitzeko. Hala eta guztiz ere, zinemak, agian, bizirauten lagunduko dio. *Acné* (Zinema Eraikitzen 12, 2007) filmaren zuzendariarena.
